



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

DONOSTIAKO ATALA
SECCIÓN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

2020 / 2021 ikasturtea

**PROIEKTU BERRITZAILE BATEAN PARTE HARTZEA: LANKIDETZA
GIPUZKOAKO PERTSONA ANTIKOAGULATUEN ELKARTEAREKIN**

Oier Odriozola Zarauz

LABURPENA

Sarrera: Espainian 800.000 pertsona baino gehiago bizi dira antikoagulatorik gaur egun. Zehazki, K bitaminaren aurkakoak diren antikoagulatzaileen bidez buruturiko Ahoko Tratamendu Antikoagulatzailea (ATA) gaixotasun kardiobaskularrak (Fibrilazio aurikularra), istripu zerebrobaskularrak eta zainetako zein arterietako tronboembolismoak tratatzeko erabiltzen da eta populazioaren %1-2k jarraitzen du. Frogatuta dago, lehen arreta mailan eta atentzio espezializatuan ahoko antikoagulatzaile bidez antikoagulatoriko pazienteengan egiten den kontrola eskasa dela, eta pazienteen ehuneko handi batek INRa (*International Normalized Ratio*) balio-tartearen kanpoan edukitzen duela eta hobetu daitekeela. Horretarako, tratamenduaren autokontrola ahalbidetzen duten zenbait elkarte daude. Euskal Autonomia Erkidegoko antikoagulatzaileen autokontrolaz arduratzen den asoziazio edo elkarte bakarra AGIAC (Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas) da, Gipuzkoan kokatzen dena.

Helburua: AGIAC elkartearekin batera, proiektu dinamiko, praktikoa eta berritzaile bat burutzea.

Jarduerak eta emaitzak: lehenik, formakuntza fasean, zenbait bileretan gaiari buruzko hezkuntza eta informazioa jaso da. Ondoren, bideoaren formakuntza fasean, bideoa burutu ahal izateko informazioaren zehaztapena eta formatuaren sorkuntza egin da. Azkenik, proiektua ezagutarazteko eta baloratzeko erabilitako metodoa zehaztu da.

Gogoeta: proiektu berritzaile honetan parte hartzea oso onuragarria izan da pertsonalki. Lan honen bitartez, oraindik landu gabeko erizaintzako alor bat landu eta garatu dudala esan dezaket. Elkartean barneratu eta elkarlanean aritzea, antikoagulazioari buruz informatzea eta erabiltzaileei osasun-heziketa bermatzea aberasgarria izan da.

Hitz gakoak: gaixotasun kardiobaskularrak; tratamendu antikoagulatzailea; autokontrola.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. HELBURUAK.....	5
Helburu nagusia	5
Helburu zehatzak	5
3. JARDUERAK ETA EMAITZAK.....	5
3.1. Formakuntza fasea.....	5
3.2. Bideoaren sorkuntza	6
4. GOGOETA	8
5. BIBLIOGRAFIA	10
6. ERANSKINAK	12
1.eranskina: Autokontrolaren gaztelaniazko bideoaren gidoia.....	12
2.eranskina: Autokontrolaren euskarazko bideoaren gidoia.....	18
3.eranskina: Gaztelaniazko <i>PowerPointa</i>	24
4.eranskina: Euskarazko <i>PowerPointa</i>	27
5.eranskina: Euskarazko <i>storyboarda</i>	30
6.eranskina: Gaztelaniazko <i>storyboarda</i>	32
7.eranskina: Euskarazko behin betiko bideoa.....	33
8.eranskina: Gaztelaniazko behin betiko bideoa.....	34
9.eranskina: Euskarazko balorazio orria.	35
10.eranskina: Gaztelaniazko balorazio orria eta erantzunak.	37

LABURDUREN AURKIBIDEA

AGIAC: Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas (Gipuzkoako Pertsona Antikoagulatuen Elkarte).

ATA: Ahoko Tratamendu Antikoagulatzaila.

FA: Fibrilazio Aurikularra.

INR: *International Normalized Ratio* (Nazioarteko Ratio Normalizatua).

TRT: Tiempo en Rango Terapéutico (Balio-tarteko denbora).

1. SARRERA

800.000 pertsona baina gehiago bizi dira antikoagulatzaile Espainian. Urtez-urte gora doan datua da gainera, biztanleriaren zahartzea eta faktore kardiobaskularren ugaritzea oinarrian izanik (1).

Tratamendu antikoagulatzailea, laburki esanda, tronboak sufritzeko arriskua duten pertsonengan, koagulazio prozesua atzeratzen duen tratamendua da. Tratamendu hau, zenbait antikoagulatzaile mota desberdinekin egin daiteke. Antikoagulatzaileak, odol-hodietan koagulatzaile sor ez dadin, odol-koagulazioaren denbora luzatzen duten medikamentuak dira (1). Aho bidez administratzen direnen artean bi talde bereiz ditzakegu; alde batetik, K bitaminaren aurkakoak eta beste aldetik, ekintza zuzeneko antikoagulatzaile berriak. Gehien erabilienak K bitaminaren aurkakoak direnez, haietan zentratuko gara. Hauen artean ezagunena eta gehien erabiltzen dena Acenocumarol-a da (SINTROM®) (2,3).

K bitaminaren aurkakoak diren antikoagulatzaileen bidez burutzen den Ahoko Tratamendu Antikoagulatzailea (ATA), gaixotasun kardiobaskularrak (Fibrilazio aurikularra), istripu zerebrobaskularrak eta zainetako zein arterietako tronbo-embolismoak tratatzeko prebentziozko tratamendu terapeutikoa da (3,4).

Tratamendu hau, orain dela 50 urte hasi zen erabiltzen, Fibrilazio Aurikularren diagnostikoek nabarmen gora egin ostean (2). Gaur egun, helduen artean ohikoena bihurtu den arritmia da (5). ATA Populazioaren %1,7-2k jarraitzen duen tratamendua da, eta fibrilazio aurikularra duten pazienteen %80ak. Fibrilazio Aurikularra, arritmia bat da, bi aurikuletan jaiotzen da eta jarduera elektriko kaotikoa (desantolatua eta azkarra) bidaltzen du. Takiarritmia suprabentrikularra da bere beste ezaugarri bat (6). Klinikoki bihotz-gutxiegitasunarekin lotzen da, enbolien agerpena errazten du eta bizi-kalitatea maila nabarmen batean hondatzen du (2,3,4).

Aipaturiko gaixotasun edo nahasteetan nabarmentzekoa da tronbosiak edota enboliak pairatzeko arriskua, eta frogatuta dago tratamendu honek konplikazioen sortzea murrizten duen arren, hemorragia arriskua sor edo areagotu dezakeela ere (2,3). Beraz, baditu zenbait murriztapen edo muga bere erabilpenean. Esaterako, aipatu beharrekoak dira, tarte terapeutiko estua, beste zenbait farmako (antikoagulazioan eragiten dutenak) eta hainbat elikagai desberdinekin (K bitaminan aberatsak direnak) interakzioak, eta aipagarriena edota buruhauste gehien ematen duena, tratamenduaren metabolismo aldakorra, antikoagulazioaren aldizkako kontrolak egitea beharrezko egiten duelarik (4).

Antikoagulazioaren kontrola ebaluatzeko zenbait metodo desberdin ezagutzen diren arren, gehien erabiltzen dena balio-tartearen barnean igarotako denbora da,

gaztelaniaz TRT (*Tiempo en Rango Terapéutico*) deiturikoa (2). Balio-tartea, dosiaren eraginkortasuna bermatzea helburu duen paziente bakoitzari egokituriko tarte bat da. Esaterako 2 eta 3 artean edota 2,5 eta 3,5 artean. Eta, odolaren koagulazio-maila tarte honen barnean geroz eta denbora gehiago mantendu, konplikazioak sufritzeko aukera asko murrizten da (1).

Beraz, K bitaminaren aurkako antikoagulatzaileekin antikoagulatutako pazientearen jarraipena egiten denean, INRaren (*International Normalized Ratio*) jarraipena eta kontrol zehatza egitea behar beharrezkoa da (2). INRa, tramendua egoki kontrolatua dagoen aztertze erabiltzen den tresna da, odol-lagin batean, koagulu bat eratzeko behar den denbora neurtzen duena (1). INRaren balioa geroz eta baxuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da tronbosia sufritzeko arriskua. Bestalde, INRa geroz eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da odoljarioak pairatzeko aukera (3). Zenbait ikerketek (3) frogatu dute, lehen arreta mailan eta atentzio espezializatuan, Ahoko antikoagulatzaile bidez antikoagulatutako pazienteengan egiten den kontrola eskasa dela, hau da, fibrilazio aurikularra pairatzen duten pazienteen ehuneko handi batek INRa balio-tartearen kanpoan edukitzen duela denbora luze batez, arrisku tronbo-enbolikoa eta hemorragikoa larriki areagotuz (4).

Hau saihesteko aukeretako bat autokontrolarena da. Autokontrolaren programen bidez, INRa neurtzeko egiten diren aldizkako kontrolak eta beharrezko dosi-doikuntzak pazienteak berak edota zaintzaileek egiten dituzte (7). Hau da, auto test-a, pazienteek beraien koagulometroaren bidez, euren koagulazio maila kalkulatzeko izango litzateke, eta autokontrola berriz, aurrez koagulometroarekin kalkulaturiko emaitzaren arabera, dosiaren doikuntza egokia egitea (3). Beraz, pazientearen papera oso garrantzitsua da INRaren kontrol egokia eramateko orduan. Frogatuta dago, sistemaren mendekotasuna murrizten duela, pazientearen autonomia eta autozaintza indartzen duela eta bere osasunaren prozesuaren parte hartzaile bihurtzen den paziente bat eratzen duela (7).

Autokontrola burutzen duten pazienteen eta lehen mailako arretan edota Hematologiako unitateetan kontrolaturik dauden pazienteen arteko alderaketa egin ostean, frogatu da autokontrola burutzen dutenen emaitzak, gainontzekoenak baino hobek direla, INRa balio-tartearen barnean denbora gehiago mantentzen dutelako eta aurrez aipatu ditugun osasun-konplikazio gutxiago sufritzen dituztelako (3,8). Horren arrazoia, kontrolen maiztasunean egon daiteke. INRaren kontrola lehen mailako arretan edota atentzio espezializatuan burutzen badugu, 4-5 astetik behin egiten da (aurreko frogaren emaitza egokia baldin bada) eta autokontrolan berriz, gehienez 7 egun igaroko dira frogak batetik bestera. Kontrolak maizago egiteak, dosia behar bezala

kontrolatzea dakar, eta horrek balio-tartearen barnean denbora gehiago egoten laguntzen du (9).

Aipagarriak dira autokontrola burutzeak dituen onura edo abantailak; batetik, aipatu diren konplikazioen murrizketa eta gaixotasunaren kontrol hobea (kontrolak maizago egiteak dakar onura hau), bestetik ekonomia eta denborari dagozkion onurak, kontrolak etxean egiten direnez ez da inora lekualdatu behar eta hortaz denbora aurrezten da; eta azkenik, nahi adina denbora bidaiatzeko aukera, antikoagulazioaren frogak eta kontrolak norberak egiten dituen eta horretarako beharrezkoak diren tresnak bakoitzak dituen, ez da arazorik inora bidaiatzeko orduan (3,9).

Autokontrola aurrera eramateko ordea zenbait material beharrezkoak dira: koagulometroa (INRa kalkulatzeko duen aparatua), ziztagailua, lantzetak, dosifikazio-txartelak (egunean hartu beharreko farmako dosia kalkulatzeko erabiltzen direnak) eta internetera konexioa duen aplikazio bat, mugikor ala ordenagailu bidez. Aipaturiko hau, ondoren azalduko ditugun zenbait asoziazioek jartzen dute erabiltzaileen eskuragarri (7). Hau guztiaz gain, prestakuntza-ikastaro bat jasotzea ere gomendagarria egingo zaio pazienteari, autokontrola egiteko gaitasuna lantzen lagunduko baitio. Ikastaro honetan, tratamenduaren prestakuntza orokorra eta oinarrizkoa jasoko du (zer tratamendu mota den, nola funtzionatzen duen, zein oinarrizko jakintza bereganatu behar dituen eta zein egoera berezietan jarri behar duen arreta) (9).

Hala ere, paziente guztiak ez daude prest autokontrolaren programa jarraitzeko. Askotan, adin nagusiko pertsonak izaten dira eta bakarrik bizi direnak, beraz zaila egiten zaie autokontrolaren pausoak jarraitzea. Gainera, aurrez esan bezala, asoziazio edo elkarteek, jarraipena egiteko beharrezkoa izaten dute internet bidezko aplikazioen bat, eta erabiltzaile horietako askok ez dutenez hauekin moldatzeko ohitura handirik, zailtasun asko izaten dute, eta ezin izaten dute jarraipena aurrera eraman (10).

Gaur egun, geroz eta asoziazio edo elkarte gehiago daude Espainian autokontrolaren programa bultzatzen eta antolatzen dutenak, esaterako AGIAC (Asociación Gipuzkoana de Personas Anticoaguladas). Elkarte honen oinarria 2012. urtean Eduardo Tamayo medikuak egin zuen ikerketa batean dago (3). Bertan, INRa modu autonomo batean kontrolatzea eta K bitaminaren aurkakoak diren farmakoen dosiak autonomiaz dosifikatzea ikertu zuen. Emaitzak positiboak zirela ikusita, eta antikoagulatuen populazioaren etengabeko gorakadak eta arrisku tronbo-enboliko eta hemorragikoak murrizteko eskariei bultzatuta, 2013ko azaroan AGIAC elkarte sortu zuten (11).

Elkarte hainbat pertsonak osatzen dute, presidentek, diruzainak, idazkariak, mediku

batzordekideak, Osasun batzordekideak, Osakidetzako batzordekideak, bi administratibok, hiru erizainek eta pertsonal boluntarioak. Gainera, geroz eta erabiltzaile gehiago dira autokontrolaren aukera aukeratzen dutenak, momentu honetan 654 erabiltzailerekin ari da elkarte harremanetan eta lankidetzan (12). Etengabeko aurrerapena, hobekuntza eta zerbitzuen hedapen zabala izan ditu AGIAC-ek hasiera gozotik. Aitzitik, Osakidetzak aitorturiko eta babesturiko erakundea da, elkarte profesionalekin eta farmazialariekin lankidetzak-hitzarmenak dituenak. Euren indarguneak irakaskuntza-jarduera sendoak eta pazienteen eta profesionalen arteko harremanak dira (11). Harremana aipatuta, aipagarria da, erabiltzaileen jarraipena egiteko momentu oro arreta pazientearengan eta haren bizi-kalitatearen hobetzean jartzen duela elkarteak, tratamenduari buruzko prestakuntza edo formazioa eta burutu ahal izateko baliabide eta ekipamendu materialak emanez. Gainera, erabiltzaileen jarraipena egiteko telefono bidezko etengabeko zerbitzu medikua eskaintzen du. Aipatu bezala, elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, erabiltzaileen harrera eta formakuntza daude. Formakuntzaren barnean ordea, bi motatako aurkezpenak egiten dituzte, batetik formakuntza presentziala deiturikoa, erizaina eta pazienteen artean burutzen dena, AGIAC-elkartearen egoitzan, eta bestetik, erizaina eta pazienteen artean "online" bidez egiten dena. Osasun-hezkuntza emateko erizainek egiten duten lana azpimarratzekoa da, eurek dituzten jakintzak partekatzen dituzte pazienteen artean, eta hauek bideratzeko behar beharrezkoak dira material fisiko zein elektronikoak, power-pointak, bideoak eta artikuluak, hain zuzen ere. Honen harira, elkarteak material hauen berrikuntza eta birmoldaketa bat behar zuela komunikatu zigun, eta hori helburutzat harturik elkarlanean hasi ginen (11).

2. HELBURUAK

Helburu nagusia:

Gipuzkoako Pertsona Antikoagulatuen Elkarteak antolatzen dituen jardueretan parte hartzea.

Helburu zehatzak:

- Elkarteak antolatzen dituen formakuntza saioetan parte hartzea.
- Pazientearen autonomia bultzatzeko bideo bat sortzea.

3. JARDUERAK ETA EMAITZAK

AGIAC elkartearekin adostu eta hitzarturiko proiektua, euren erabiltzaileentzat bideo informatibo bat egitea izan da, adosturiko proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat eta hainbat pausu jarraitu behar izan dira. Elkartearekin nahiz unibertsitateko tutoreekin zenbait bilera burutu eta ondoren ikasle bion arteko beste zenbait elkarretaratze egin dira. Alde batetik, formakuntza fasea burutu da, bertan AGIAC elkarteari esker, antikoagulazioa eta autokontrolari buruzko hezkuntza eta informazioa jaso dute ikasleek. Eta bestetik berriz, bideoaren sorkuntza, bertan bideoa egiteko beharrezkoa den prozesu luze eta sakona azalduko da.

3.1. Formakuntza fasea

Lehenengo bilera edo elkarretaratzea AGIAC elkartearekin, **2020ko azaroaren 4ean** egin zen, Donostiako Legazpi kaleko 4. helbidean dagoen egoitzan, elkar ezagutu eta lanaren nondik norakoak zehazteko asmoz. Elkarte osatzen zuten zenbait kiderekin burutu zuten bilera sortzaileek, Eduardo Tamayo eta Edurne Uranga (medikuak), Jazmina Nuñez (erizaina) eta Gonzalo Guerricarekin (kimikaria eta EHUko irakaslea), hain zuzen ere. Proiektuaren nondik norakoak zehaztu ondoren eta erabiltzaileentzat bideo informatibo bat egingo zutela erabaki ostean, handik egun batzuetara, elkarteak eskaintzen zuen formakuntza saio presentziala burutu zen Donostiako egoitzan, elkartearen eginkizuna ulertzeko eta autokontrolari buruzko informazioa eskuratzeko. Saio presentzian, gaur egungo Covid-19a prebenitzeko neurriak direla eta, 3 paziente, Arantza Murguiondo erizaina eta ikasleetako bat elkartu ziren. Arantzak, AGIAC elkarteko erabiltzaileei eskaintzen zaien formakuntza aurkeztu zuen eta ikasleak entzule lanak burutu zituen, informazioa adeitasun osoz jasoz eta zalantzak galdetuz.

Hezkuntza fasearekin jarraituz, eta informazioa jasotzeko asmoz, sortzaileak AGIAC elkartera hurbildu ziren berriro ere. Bertan, Eduardo Tamayok, erabiltzaileari ematen zaion informazioz beteriko *pendrive*-a (bertan artikulua, aurkezpenak eta liburuxkak

zeuden), eta beste zenbait dokumentu fisiko eskuratu zizkien .Honez gain, ikasleak zituzten zalantzak argitzeko erabili zuten elkarretaratze hau.

3.2. Bideoaren sorkuntza

Elkartearekin lehen elkarretaratzea egin ondoren eta proiektuaren zehaztapenak zehaztu ostean, ikasleak bideoaren sorkuntzarekin hasi ziren, atal honetan, bideoen sorkuntza eta atal guztiak azalduko dira. Prozesu hau, 2020ko azaroan hasi eta 2021eko apirilean amaitu zen.

Lehen pausoa, Elkartearekin zehazturikoa Unibertsitateko tutoreekin partekatzea izan zen. Horretarako, *Blackboard* bidezko bilera bat burutu zuten, elkartearekin adostutakoaren berri eman zitzaien eta haien iritzi eta onarpena jaso zen. Tutoreen onespena jaso ondoren, bideoaren nondik norakoak zehatz mehatz zehazteko AGIAC-en egoitzan beste elkarretaratze bat egin zen, Edurne eta Jazminarekin. Bilera honetan lanaren zehaztapena burutu zen. Hau da, 10 minutuko bi bideo egin beharko ziren, *PowerPoint* baten laguntzaz eta egileen ahotsak “voz en off” bidez txertatuak. Elkarteko dokumentazio guztia gaztelaniaz egonik, ideia egokia eta beharrezkoa iruditu zitzaien egile eta elkarteko kideei, bideo bat euskaraz eta bestea erdaraz egitea.

2020ko abenduko bigarren astean zehar, tratamendu antikoagulatzailearen eta autokontrolaren buruzko informazioa biltzeko bilaketa bibliografikoa burutu zen honako datu-base hauetan; Dialnet, *PubMed* eta BVS. Hauetan, gure gaiarekiko lotura zuten artikulak eta gaurkotasun handia zutenak aukeratu eta informazioa kontrastatzeko erabili ziren.

Behin informazioa bildu ostean, informazioa aukeratu (gure proiekturako beharrezkoa zena soilik)eta bideoak egin ahal izateko dokumentu idatziak sortu ziren. Informazio guztia gaztelaniaz egonik, lehenik gaztelaniazko dokumentua sortu zen eta ondoren euskaratzeari ekin zitzaion. Gidoiak amaitu ondoren, email bitartez AGIAC elkarteko kideei eta Unibertsitateko tutoreei bidali zitzaizkien, zer iruditzen zitzaizkien jakiteko eta zuzenketak burutzeko asmoz (1.eranskina) eta (2.eranskina).

Behin betiko txostenak edo gidoiak osatuta, beste pauso bat aurrera eman eta *PowerPoint*-en eraketa hasi zuten. Lehenik, *PowerPoint*-a egiteko plantilla aukeratu zen, Gradu Amaierako Lanak burutzeko orrialde batetik hartua (<https://slidesgo.com/es/>) eta hau egin ostean, bi aurkezpenen eraketari ekin zitzaion, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Honetan ari zirela, egileak txostenean idatzirik zegoen informaziotik aurkezpenean garrantzitsuena soilik agertu behar zela ohartu eta hau kontuan hartuz bi aurkezpenak osatu ziren. Amaitutzat eman aurretik ordea, gidoiekin egin zen bezala, bai AGIAC elkartekoei eta baita unibertsitateko tutoreei ere

bidali zitzaizkien, haiek gainbegiratu zitzaten (3.eranskina) eta (4.eranskina).

2021eko urtarrilaren 28an, bideo deia hitzartu zen unibertsitateko tutoreekin, *PowerPoint*-ak amaitutzat eman eta ahotsaren grabazioaren nondik norakoak galdetzeko. Bideo dei honetan, ahotsaren grabaketarekin hasi aurretik, *storyboard* (gidoi grafikoa) bat egitea adostu zen, grabazioak errazteko eta lan guztia antolatuta eta garbi eduki ahal izateko. Handik egun batzuetara, bideoaren *storyboard*-ak sortzeko bi bilera egin ziren Donostiako liburutegian (5.eranskina) eta (6.eranskina).

Bideoaren sorkuntzako azken fasean sartuta, **2021eko otsailaren 6an** egin zen ahotsa grabatzeko lehen bilera, eta lehen grabazioa Lekunberriko Musika eskolan. Hori burutzeko, Arrasateko Mondragon unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazio gradua ikasten ari den ikasle bat, Manex Moreno, grabaketa burutzeko ordenagailuko programa eta jarraibideekin etorri zen. Ordenagailuko programaz aparte, mikrofonoa eta grabagailua ere behar izan ziren, eta hauek Lekunberriko Musika Eskolaren bitartez eskuratu ziren. Ahozko frogaren bigarren saiakera astebete beranduago gauzatu zen eta behin betiko grabaketa berriz, **2021eko otsailaren 20an**.

Ahotsaren behin betiko grabaketa gauzatu eta bideoaren edizioa egiteko, ikus-entzunezko komunikazioko ikasle den Manex Morenoren laguntza izan zuten. Manex Morenori *PowerPoint*-ak eta ahotsaren grabazioak helarazi zitzaizkion, *storyboard*-ekin batera eta edizioaren nondik norakoak bere esku geratu ziren.

Lehenengo bertsioa euskaraz, **2021eko martxoaren 1ean** jaso zen, eta bideoaren azterketa sakona burutu zen, akatsak edo hobetu beharrekoak aurkitzeko asmoz.

Erdarazko lehenengo bertsioa berriz, hiru aste beranduago jaso zen eta euskarakoarekin egin bezala, azterketa sakona egin zen. Azterketa egin eta gero behin behineko bideoen zuzenketa gauzatzeko, editorea eta bi ikasleen arteko elkarretaratzea burutu zen, eta bertan, bideoak behin eta berriz ikusi ondoren, hiruen artean sorturiko zenbait hobekuntza eta akatsen zuzenketa egin zen. Esaterako, atzeko musika jartzea eta diapositiben erritmoa mantsotzea. Honekin, behin betiko bideoak osatu ziren (7.eranskina) eta (8.eranskina).

Azkenik, proiektuaren amaierako atalean, sortutako materiala elkartera bidali eta erabiltzaileei luzatu zitzaien. Bideoak **2021eko apirilaren 2an**, AGIAC asoziazioan aurkeztuak izan ziren, eta bertako arduradunaren esku utzi zen erabiltzaileengana materiala bidaltzeko ardura. Horretaz gain, sortutako materialak zein gogobetetze maila duen jakiteko, bi balorazio orri sortu ziren (9.eranskina) eta (10.eranskina). Hauen bitartez, erabiltzaile zein osasun profesional baten iritzia jaso ahal izango da. Balorazio orri hauek, bideoekin batera bidaliak izan ziren asoziaziora, erabiltzaileek zein osasun-profesional batek bete zitzaten.

Balorazio orrien emaitzei erreparatuz (10.eranskina), hurrengoa nabarmentzen da. Bederatzi pertsonak erantzun dute gaztelaniazko balorazio orria eta euskarazkoan berriz, ez da erantzunik jaso. Zortzi pazientek balorazioko galdera guztiak erantzun dituzte eta horietako batek galdera bakarra erantzun du. Azken honek, berarentzat letra txikiegia dela eta irakurtzeko arazoak dituela azaldu du.

Orokorrean bideoek balorazio positiboa izan dute, zoriontzeko hainbat iruzkin utzi dituztelarik. Hizkuntza argia, formatu deigarria eta transmisio-bide zuzena. Gainera, bideoa ikusi ostean bururatutako hainbat gomendio ere helarazi dira, bideoaren amaieran kontaktu bideak (telefonoa edota emaila) azaltzea batik bat.

Bestetik, elkarteko profesionalengandik jasotako hitzek, proiektuaren helburu nagusia bete dela adierazi dute, batez ere, oso erabilgarria izango zaiela behin eta berriz errepikatu dutelako. Arantza Murguiondo erizainak zehazki, hobetzeko iruzkin bat gehitu du: bideoan heparinaren efektuaz hitz egitean, INRaren balioa handitzeko dela esan beharrean, INRa handitzen den bitartean administratu beharreko elementu gehigarria dela esateko.

4. GOGOETA

AGIAC elkartearekin Gradu Amaierako Lana burutzeko elkarlanean aritzea oso atsegina eta onuragarria izan da pertsonalki. Elkartearen egin beharretan eta barne dinamikan partaide izateak, eta erabiltzaileekin harreman estua izateak, erizaintza ikasketa prozesua osatzen eta erizain profesional bilakatzeko, hezitze-prozesuan asko lagundu nau. Lan honen bitartez, erizaintzako beste alor bat landu dudala esan dezaket, praktika asistentzialetan edota unibertsitateko ikasketa-jardunean oraindik landu eta ezagutu gabeko alor bat, osasun-hezkuntza emateko gaitasuna eta ezagutza, hain zuzen ere.

Alde batetik, azpimarratu nahi nuke, proiektu honen bitartez autokontrolaren gaian barneratu naizela, eta zehazki ATAre inguruko ezagutzak garatu eta barneratu ditudala. Horretaz gain, lehen aldiz elkarte bateko partaide izan naizen heinean, erantzukizuna eta ardura sentitu ditudala, neure lana ongi egin beharraren presioaz gain. Hala ere, elkartekideekin zein pazienteeekin oso eroso eta barneratuta sentitu naizela ere aipatu nahi dut, elkartekideek edozertan lagundu bainaute eta pazienteeek hurbiltasuna eta gertutasuna transmititu.

Bestetik, sortutako informazio-bideoa, baliagarria dela pentsatzen dut, bai elkartearentzat eta baita erabiltzaileentzat ere. Elkartek, autokontrolari buruzko informazio laburra eta argia azaltzen duen material didaktiko bat eskuratu du, gainera, bizi garen gizarte honetan eta gaur egungo Covid-19a dela eta, geroz eta balio

handiagoa dute baliabide elektroniko eta material didaktikoek. Erabiltzaileek berriz, euren gaixotasunarekiko prozesua erraz ulertzen lagunduko dien material berria eskuratu dute, eta euren autonomia eta ahalduntzea indartzeko balioko dien tresna.

Bideo hau sortzeko proiektua dinamikoa eta eramangarria izan denez, gustura eta eroso aurkitu naiz, eta klase kide batekin lankidetzan aritzeak asko lagundu nauela aitortzen dut.

Datorren urtera berrira, proiektu berritzaile honekin jarraitzeko gomendioa bultzatu nahi nuke. Proiektuan parte hartzen duten bi aldeentzat baita esperientzia onuragarria. Aurrez aipatu dudan guztiagatik, ikasleok aberasturik eta ideia berriekin amaitzen dugu esperientzia, aitzitik, sorturiko materiala elkarteak formakuntzak emateko erabiltzeak, harrotasuna eta erabilgarritasuna transmititzen dizkigu.

Proiektua hobetze aldera ordea, zenbait hobekuntza edo aldaketa proposatu nahi nituzke, nik aurten faltan bota ditudan aldetik. Elkartearekin lankidetzara orokorragoa eta estuagoa izan dadin, elkarteak antolatzen dituen eta eskaintzen dituen jarduerak presentzial guztietara joatea gomendatuko nieke, pertsonetako komunikazioa eta harreman zuzena oso garrantzitsua baita. Bestalde, "online" bidezko formakuntzetan ere parte hartzeri gonbidatuko nituzke, erabiltzen diren materialak ikusi eta baloratzeko helburuarekin.

5. BIBLIOGRAFIA

1. Dorronsoro O, Galo A, Murguiondo A. Formación en Autocontrol del Tratamiento Anticoagulante Oral (TAO): Guía para el anticoagulado. Donostia: AGIAC; 2018.
2. Pérez D, Álvarez GM, Ruiz M, Guodemar J, Hervás JP. Patrones de multimorbilidad, grado de control y riesgo hemorrágico en pacientes con antagonistas de la vitamina K. Aten primaria. 2018;50(2):134-5. <https://doi.org/10.1016/j.aprim.2017.07.002>
3. Tamayo E, Galo A, Dorronsoro O, Uranga E, Ostiza A, García A, et al. Oral anticoagulation with vitamin K inhibitors and determinants of successful self-management in primary care. BMC Cardiovasc Disord. 2016; 16:180. DOI 10.1186/s12872-016-0326-z
4. Fernández P, López MI., Merino de Haro I, Cedeño G, Díaz FJ., Hermoso A. Estado de control de pacientes en tratamiento con anticoagulantes orales antagonistas de la vitamina K en atención primaria. Estudio ECOPAVIK. Semerg. 2016;42(8):530-7. DOI: 10.1016/j.semerg.2015.12.006
5. Castro C, Bustos L, Ocampo R, Molina E, Cabrero P, Vergara R, Lanás F. Efectividad y seguridad del tratamiento anticoagulante con acenocumarol en fibrilación auricular no valvular. Rev méd Chile. 2017;145(10). DOI: 10.4067/S0034-98872017001001243
6. Reyes FA, Pérez MA, Figueredo E, Núñez B, Jiménez K. Fibrilación auricular. Panorámica sobre un tema actualizado. CCM. 2018 [konsulta-data: 03-2021];22(4):695-718 <http://ref.scielo.org/mbrmxch>
7. Galo A, Dorronsoro O. Formación en autocontrol del paciente anticoagulado: Guía para el profesional sanitario. Donostia; AGIAC; 2015.
8. Berrueco R, Benedicto C, Ruiz-Llobet A, Gassiot S, Catalá A. Programa de autocontrol del tratamiento anticoagulante oral con antagonistas de la vitamina K en pacientes pediátricos. Asoc Esp Pediatría. 2018;89(6):381-3. DOI: 10.1016/j.anpedi.2018.01.009

9. AGIAC elkartea. Autocontrol en el TAO (Tratamiento Anticoagulante Oral). Donostia Gipuzkoa; 2020.
10. Sofía Lamas Rodríguez. Autocontrol del INR domiciliario en el paciente anticoagulado con Fibrilación Auricular [gradu amaierako lana interneten]. A Coruña: Universidade Da Coruña, Facultade de Enfermería e Podoloxía; 2019 [kontsulta-data: 2021/03/10]. Eskuragarri:
https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/23415/LamasRodriguez_Sofia_TFG_2019.pdf?sequence=2&isAllowed=y
11. AGIAC- Asociación Gipuzkoana de Anticoagulados [Internet]. Donostia, Gipuzkoa; 2021 [kontsulta-data: 2021/10/03]. Eskuragarri: <http://agiac.org/>.
12. AGIAC. Memoria de actividades de la Asociación Gipuzkoana de Anticoagulados/as. Donostia/San Sebastián: AGIAC; 2019.

6. ERANSKINAK

1.eranskina: Autokontrolaren gaztelaniazko bideoaren gidoia.

Kaixo, ¿buscas información sobre el autocontrol? **(Olaia)**.

Introducción (Olaia):

El autocontrol es una herramienta segura y eficaz, que mejora la salud, la calidad de vida y la economía y descarga el Sistema de Salud. Pero para poder llevarlo a cabo, antes debes entender varios conceptos que te explicaremos a continuación.

Contenido (Oier): Este será el contenido que trataremos a continuación: conceptos, medicamentos, palabras clave, riesgos, alimentación, beneficios del autocontrol, toma y confusiones, interacciones y por último mayor autocuidado.

1. Definir conceptos (Olaia):

- La coagulación es la propiedad que tiene la sangre de espesarse. Se trata de un sistema de defensa del organismo que trata de evitar grandes pérdidas de sangre y mantener un equilibrio, por ejemplo, al hacerte una herida. Pero todos los coágulos no son beneficiosos, si el coágulo se forma dentro un vaso sanguíneo del sistema circulatorio y obstruye el paso de la sangre (llamado Trombo) pone en riesgo tu salud.
- La anticoagulación es un tratamiento que se utiliza en las personas que tienen riesgo de producir trombosis y para retrasar el proceso de coagulación con el objetivo de que el coágulo no se forme dentro de los vasos sanguíneos. No inhibe la coagulación, porque el organismo necesita tener factores de coagulación ante una hemorragia, sino que la hace más larga en el tiempo. Gracias a ello, se procura evitar los trombos y prevenir problemas de trombosis, ictus, etcétera.

2. Medicamentos (Oier):

- Los anticoagulantes son el grupo de medicamentos que sirven para retrasar el tiempo de coagulación de la sangre.
- Dentro de los anticoagulantes orales tenemos dos grupos:
 1. Inhibidores de la vitamina K: Actúan retrasando el tiempo de coagulación de la sangre.
 - Acenocumarol (Sintrom):es el más utilizado en España.

- Warfarina (Aldocumar, Tedicumar).
2. Anticoagulantes Orales de acción directa (ACODs): actúan a distinto nivel de la coagulación. Son utilizados en pocas ocasiones, puesto que no hay antídoto para todos en el mercado (en el caso del Sintrom tenemos la vitamina K). Encima, a diferencia del Sintrom no se pueden pautar a todos los pacientes, además de no necesitar control y ser muy caros.

Cada cuerpo tiene diferentes necesidades que varían dependiendo del estilo de vida y del funcionamiento del organismo, y por ese motivo cada persona tiene una dosis distinta.

3. Palabras clave (Olaia) + (Oier):

- INR: Es el resultado que te da el coagulómetro (aparato). Concretamente, es el tiempo que tarda en coagular la sangre. Con un INR bajo tendrás más probabilidad de sufrir trombosis y el riesgo de hemorragias es mayor cuando el INR está en cifras altas. Siempre será menos malo (que no mejor) que el INR esté un poco por encima que un poco por debajo).
- Rango: El valor del INR debe estar dentro de tu rango. Cada uno tiene su propio rango, por ejemplo: 2.0-3.0 , 2.5-3.5... El cual varía según el paciente y la patología. Busca garantizar la eficacia de la dosis, previniendo la trombosis, y asegurando de que no se van a provocar hemorragias. El margen lo indicará el médico/a a cada paciente. Cuanto más tiempo consigas estar dentro del rango, menor probabilidad de complicaciones tendrás y por lo tanto, mejor salud.
- Nivel: Es el patrón de ritmo de pastillas que hay que tomar. Lo sabrás consultando en la tabla de niveles. El número del nivel, no es equivalente a la dosis de mg/semana. Por ejemplo, si se corresponde el nivel 6, no quiere decir que se deba toma 6mg de dosis a la semana.
- Hemorragia: la hemorragia es una pérdida de sangre o un sangrado que al mismo tiempo es uno de los riesgos del tratamiento anticoagulante, aumenta la probabilidad si el INR está por encima del rango.

- Trombos: Son coágulos que se forman en las fosas del corazón o en los vasos sanguíneos del organismo que obstruyen el flujo adecuado de la sangre.
- Vitamina K: El Sintrom es un inhibidor de la vitamina K, pero es necesario remarcar que consumir cierta cantidad de esta vitamina también es de gran importancia. La vitamina K es una vitamina necesaria para la realización de varias funciones del organismo como mantener la correcta mineralización de los huesos y la prevención de la osteoporosis. Además de prevenir varios problemas cardíacos y caries dental. Tomar vitamina K es beneficioso para la vista y para la integridad de la piel.
- Konakion: Es una aportación de vitamina K para disminuir el INR cuando está muy alto. La orden médica determinará si ese día no se deberá tomar la dosis de la pastilla por haber tomado el antídoto de ella.
- Heparina: Es un anticoagulante inyectable que se indica por el profesional sanitario en función del riesgo de trombosis. Con ello, se logra aumentar el INR para aproximarse al valor mínimo recomendado del rango, pero no se da en todos los pacientes. Se administra para proteger al/a la usuario/a de los posibles trombos. La orden médica determinará si además de la inyección se deberá tomar también la dosis de la pastilla.

4. Riesgos (Olaia):

Debes tener cuidado con los riesgos como los tropezones (debes usar zapatillas cerradas por detrás siempre), las caídas (cuidado con las alfombras, cuidado con subirse a alturas, cuidado con los deportes de gran intensidad, deportes de contacto, o deportes en el que el riesgo de caídas es alto, como por ejemplo el ciclismo), cuidado con las mordeduras o los arañazos (si tienes animales de compañía sobre todo) y cuidado con los cortes (al usar instrumentos afilados como cuchillos, tijeras, cuchilla... es mejor utilizar maquinilla eléctrica que cualquier cuchilla). Se recomienda usar cepillos de dientes suaves y cabezal pequeño como precaución ante cualquier sangrado. Si te ocurre algo de lo mencionado anteriormente, avisa al profesional de salud o acude al Servicio de Urgencias lo antes posible.

5. Alimentación (Oier):

Uno de los apartados más importantes o debatidos y el que más preguntas genera en el ámbito del autocontrol es el de la alimentación. La idea más importante es, que tienes que llevar una dieta equilibrada, moderada y variada.

Una de las ideas erróneas que se genera entre los pacientes, es que hay que dejar de consumir alimentos ricos en vitamina K. Queremos subrayar que lo importante es que la medicación (Sintrom) se adapte a tu forma de vida y no al revés, es decir, no debes cambiar bruscamente tu estilo de vida y la alimentación por el simple hecho de que estés anticoagulado/a. Tan inadecuado es consumir estos alimentos de forma excesiva como dejar de tomarlos por completo.

Lo importante, es mantener el aporte de esta vitamina de una forma continuada y seguida, evitando fases de gran consumo y escaso consumo, o lo que es lo mismo, tener mucho cuidado con los cambios bruscos en la dieta.

Por último, te recomendamos no consumir alcohol ni otras drogas como el tabaco, ya que afecta directamente en los resultados del INR (el alcohol eleva el resultado y el tabaco lo disminuye) convirtiéndose en factor de riesgo cardiovascular y de otras enfermedades.

Pirámide alimentaria: Te presento la pirámide alimentaria. En los niveles más bajos se sitúan los alimentos que deben ser consumidos con más frecuencia. A medida que vamos ascendiendo en la pirámide, esta frecuencia se va reduciendo hasta alcanzar el vértice superior, donde se encuentran los alimentos que deben ser consumidos de manera ocasional.

6. Beneficios del autocontrol (Olaia):

- General: El autocontrol del TAO (tratamiento anticoagulante oral) mejora el TRT (tiempo en rango terapéutico) y disminuye el número de complicaciones graves y la mortalidad respecto a las personas que utilizan la alternativa de control convencional. La educación sanitaria del y de la paciente con enfermedad crónica, contribuye a mejorar el conocimiento sobre su tratamiento, a ser más responsable y a realizar una mayor autogestión de su enfermedad. Es una herramienta segura y mejora la calidad de vida.
- Economía: si practicas el autocontrol, no tienes que desplazarte, lo podrás hacer en tu domicilio o dónde más cómodo te sea. Además, economizas tu

